



www.pixkanakakaskari.org/lanaur

Merkatuko erreferentziak



Eurostoxx50: **-%12**
Ibex35: % 1,58
Bonoa 10urte: %2,22
KPI: %3,0 (apirila)

2022 metatutako emaitza

-%4,54

Zorroaren banaketa


Err. finkoa %60,9
Err. aldakorra %34,1
Inb. altern. %5



Zorua?

Burtsek lur-hartze leuna izan dute maiatzean, eta IBEXak bigarren hilabetez jarraian errentagarritasun positiboa izan du, nahiz eta aurten irabaziak izan dituen Europako indize bakarra izan.

Erakunde instituzional guztiak 2022-2024 aldirako hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusten ari dira eta interes-tasei dagokienez, banku zentralak igoerekin jarraitzea aurreikusten da.



Enpresaren ekarpenak

Kutxabanken Hitzarmen Kolektiboak enpresak Lanaur HIRUko bazkidee aktiboen alde hilero ekarpenak egin behar dituela jasotzen du. Egungo hitzarmena, **PK**-k sinatua, 2024ko abendura arte dago indarrean, eta mugaeguneratutakoan, 24 hilabeteko aurreraeragina jaso zuen, 2026ko abendura arte; beraz, ekarpen horiek, gutxienez, ordura arte hitzartuta daude.

Ekarpen horien urteko zenbatekoa VII-A mailaren %6 da (**3.407,28€ 2022rako**), eta hitzarmenean jasotako soldata-berrikuspenekin eguneratzen dira.

Beraz, 2021etik 2026ra bitartean 20.000€ baino gehiagoko ekarpena egingo zaio bazkide aktibo bakoitzari.



PK-k sustatutako akordioen ondorioz, bazkide bakoitzarentzako urteko ekarpena 2012an 1.631,11€ izatetik 2022an 3.407,28€ izatera pasa da.